

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

**ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK-
BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA**

Lehendakaritzaren ebazpena, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia egiten duena, 1200 001 kodea

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lanpostu zerrendan Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1200 001) ageri da, baina egun hutsik dago.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 46.1 artikulua ezartzen du funtzionarioentzako gordeta dauden lanpostuak lanpostu zerrendetan ezarritakoaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren indarreko lanpostu zerrendak xedatzen du aipatutako lanpostua euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela izendapen aske bidez.

Horrenbestez, eta Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluaren delegazioz dagozkidan ahalmenak egikaritzuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehena. Onarpena ematea Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1200 001) izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdiari.

Bigarrena: Ebazpen honekin batera dauden deialdiaren oinarriak onartzea.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan – urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikularekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 11n

Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren presidentea
MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOAREN GIZA BALIABIDEEN ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETAREN ZERBITZUAREN BURUAREN LANPOSTUA (KODEA: 1200 001) IZENDAPEN ASKEKO SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN ONARRIAK**LEHENA. DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdi honen xedea da izendapen askeko sistemaren bidez betetzea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1200 001).

BIGARRENA. LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA

Sailkapen taldea: A1

Destino osagarriaren maila: 26

Berariazko osagarria: 38.501,68 euro.

Lantoki herria: Gasteiz.

Dedikazioa: Esklusiboa.

Ordu prestasuna: 60 ordu.

Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun data 2017/01/01.

HIRUGARRENA. BETEKIZUNAK

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako:

1. Euskal Herriko herri administrazioetako edozeinetan karrerako funtzionarioa izatea.
2. A1 titulazioko taldekoa izatea eta Administrazio Orokorreko edo Administrazio Bereziko eskalakoa edo eskala baliokideren batekoa, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak xedatutakoaren arabera.
3. Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketaren, barne sustapenaren edo kanpoko hautaketaren bidez, berdin diolarik zein administrazioetatik datorren izangaia eta zein kidego eta eskalatik parte hartzen duen.
4. Ez egotea eginkizunak irmo eten izanaren administrazio egoeran.
5. Ez egotea borondatezko eszedentziako administrazio egoeran (interes partikularragatik edo familia kontuengatik), salbu eta egoera horretan egon bada zerbitzu aktibora itzuli ahal izateko gutxienez eskatzen diren bi urteetan, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako.
6. B motako gidabaimena izatea.

LAUGARRENA. ESKAERAK

Interesdunek Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lehendakariari zuzenduko dizkiote beren eskaerak, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatzen dituen bideetako edozeinetatik aurkeztuko dituzte. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik Aurrera.

Deialdi honen hirugarren oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzearen egiaztagiriekin batera aurkeztuko da eskaera.

Jatorri administrazioiko organo eskudunak egindako egiaztagiriaren bidez egiaztatuko da betetzen direla hirugarren oinarri horretako 1, 2, 3, 4 eta 5 idatz zatietan jasoriko betekizunak.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko funtzionarioak diren izangaiek ez dituzte aurkeztu behar erakunde autonomoko artxiboetan dauden datuen egiaztagiriak.

Eskaera horretan beste hauek ere adierazi beharko dituzte:

A) Ikasketa tituluak.

B) Herri administrazioan ala enpresa pribatuan betetako lanpostuak. Haietako bakoitzaren eginkizunak adierazi beharko dira.

C) Egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak.

D) Izangaiek egoki irizten dituen bestelako merezimenduak. Horrekin batera, alegatutako merezimenduak egiaztatzeke agiriak aurkeztu behar dira.

BOSGARRENA. DEIALDIAREN EBAZPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA

Izangaiek alegatutako merezimenduak aztertu ondoren, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lehendakariordeak Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lehendakariari helaraziko dio izendapen proposamena. Deialdiaren ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

Izangaien arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.

Funtzionarioak jatorri lanpostua uzteko eskaera hautatze prozedura honen ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan egingo du, eta lanpostu hori utzi eta hurrengo egunean jabetuko da lanpostuaz.

Lehiaketaren ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, deialdiaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan jabetu beharko da funtzionarioa lanpostuaz.

Baimen, lizentzia, opor edo funtzionarioa dagoen beste edozein egoera bukatzen denera arte, hau da, nahiz eta funtzionarioa zerbitzu aktiboan egon bere zerbitzuak benetan ematea eragozten duen edozein egoera bukatzen denera arte atzeratuko da funtzionarioa lanpostuaz jabetzea.

Funtzionarioa ez bada prozeduran lortutako lanpostuaz jabetzen hartarako adierazitako epean, titulartasuna galduko du.

Prozedura ebazteak badakar etxebizitzaz aldatu beharra, hori borondatez egingo da eta ez da egongo eskubiderik inolako kalte-ordainik jasotzeko.

SEIGARRENA. AURKARATZEA

Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legean, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenean, ezarritako kasu eta moduetan.